

IZAN GINELAKO

Herria ezagutzen



Argitaletxea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

Egilea: Arrasateko Udala. Hezkuntza Saila.

"Hik Hasi" aldizkariarekin elkarlanean.

Ilustrazioak: Aitziber Alonso

Diseinua:  zure balioen marka

Argazkiak: Arrasateko Udal Artxiboa, Indalecio Ojanguren, (17.,20. eta 21. orrietako argazkiak) Albaro Arrizabalaga eta J. Altunarenak dira, Arrasateko Udalaren web orria eta Arrasateko Udalaren Hezkuntza saila.

Inprimatzailea: Gertu

LG: SS-1024/2010


IZAN GINELAKO

Herria ezagutzen



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi



Gaur egun, teknologia berrien bidez, eskuragarri daukagu mundu osoko informazioa, klik gutxi batzuk eginez. Pantaila aurrean leiho birtualak zabalduz gai gara mundua ikusteko. Baina, aldi berean, konturatzen gara gure herria ezagutu ere ez dugula egiten, horren gertu daukagunaren inguruko ezagutza urrun dagoela ikusten dugu.

Gure herriari buruzko informazioa sakabanatuta dago jaso, eta esan genezake sarri belaunaldi batetik bestera pasatu ere ez dela egiten.

“Herria ezagutzen” egitasmoaren bitartez aurretik aipatutakoa gainditzea dugu helburu, izan ginenaz, garenaz eta izango garenaz jabetzeko asmoz, gure herria bertatik bertara ezagutarazi nahi dugu.

Arrasateko Udalak elkarlanaren bitartez lortutako proiektua da honakoa, eta bidelagun izan ditugu Hik Hasi eta herriko ikastetxeak.

6 unitate didaktikoz osatuta eta lehen hezkuntzara bideratuta dago (6 eta 12 urte bitarteko ikasleentzat), eta ikasturte bakoitzean unitate bat landuko dute. Horietako bakoitzak herriko ondarearekin lotutako hainbat kontzeptu eskaintzeaz gain, aukera ematen du herriko pertsonaia, bitxikeria, abesti, ohitura eta abar ezagutzeko eta lantzeko.

Aurrerabidean jatorria ezinbesteko mugarrria da, gure sustriak eta ondarea, nondik gatozen jakitea da etorkizuna eraikitzeke lehenengo harria.



KAIXO LAGUNOK,
EZAGUTZEN AL NAUZUE?
NI **ARRASATEKO LEZETXIKIN** BIZI IZAN
GINEN LEHEN BIZTANLEETAKO BAT NAIZ.
ASPALDITIK EZAGUTZEN DUT ARRASATE, ETA
DESIATZEN NAGO BIZITAKO GUZTIA ZUEKIN
KONPARTITZEKO, ZUEI KONTATZEKO ETA
IRAKASTEKO.

PREST AL ZAUDETE?

 OSATU HONAKO BERTSO HAU:

HERRIKO HISTORIA

TA _____

HAMAIKA BITXIKERI

ETA _____

ETORRI NAHI AL DUZU

GUREKIN _____

PIXKA BAT EZAGUTUZ

ONDO _____

BATERA

BILAKAERA

PASATZERA

GERTAERA



BIRIBILDU EZAGUTZEN DITUZUNAK.



 ZER DAKIZU ZURE HERRIARI BURUZ?



 ZER IKASI NAHIKO ZENUKE?



 ZUZENAK  ETA OKERRAK  MARGOTU.

HONDARTZA DU

BASERRIAK DITU

HERRI TXIKIA DA

ERREKA BAKARRA DU

AUZO UGARI DITU

OSPITALEA DU

TRENA DU

BIZTANLE ASKO DITU

 ZER HITZ EDO EZAUGARRIREKIN LOTUKO ZENUKE ZURE HERRIA?

.....
.....
.....
.....

 HERRIKO TOKI EDO TXOKO GOGOKO BAT MARGOTU EDO HAREN ARGAZKI BAT ITSATSI, ETA BEHEALDEAN LEKUAREN IZENA IDATZI.

.....

ORAIN DELA URTE ASKO, EUSKAL HERRIA
URPEAN ZEGOEN, ITSASOA ZEN.

POLIKI-POLIKI LUR MUGIMENDUEN
ONDORIOZ, ITSAS AZALERAN LURRA
AGERTZEN HASI ZEN.



 ORAIN DELA MILAKA URTE... GIZAKIAK BIZI ZIREN ARRASATEN.



ZAILA DA IMAJINATZEA ORAIN DELA MILAKA
ETA MILAKA URTE, GURE HERRIAN BIZTANLEAK
BIZI ZIRELA.

BAINA AURKITUTAKO AZTARNEI ESKER,
GUZTIZ EGIAZTATUTA DAGO.

BERAZ, ORDUKO GARAIARI BURUZ IKASI ETA
SAKONDUKO DUGU JARRAIAN!




 ZER JAKIN NAHI IZANGO ZENUKE?





DUELA MILAKA URTE, KOBAZULOETAN BIZI ZIREN...



KALKULATU ETA KOKATU LETRA BAKOITZA DAGOKION LEKUAN.

$\begin{matrix} \boxed{E} \\ \boxed{6-4} \end{matrix}$	$\begin{matrix} \boxed{I} & \boxed{8-1} \end{matrix}$	$\begin{matrix} \boxed{Z} \\ \boxed{1+3} \end{matrix}$		$\begin{matrix} \boxed{L} \\ \boxed{10-9} \end{matrix}$	$\begin{matrix} \boxed{E} & \boxed{9-5} \end{matrix}$			$\begin{matrix} \boxed{I} \\ \boxed{7+2} \end{matrix}$
	$\begin{matrix} \boxed{T} \\ \boxed{3+2} \end{matrix}$	$\begin{matrix} \boxed{K} & \boxed{4+4} \end{matrix}$			$\begin{matrix} \boxed{X} & \boxed{5+1} \end{matrix}$			
1	2	3	4	5	6	7	8	9

BIZIMODUA LEIZEETAN:

BIZILEKUA

HAITZULOETAN
BABESTEN ZIREN.
15-20 LAGUNEKO
TALDEETAN BIZI
ZIREN.



ELIKADURA

EHIZTARIAK ZIREN: BISONTEAK,
OREINAK, UROAK (ZEZEN
BASATIAK), ETAB. FINEAN, ORDUKO
KLIMA GOGORRERA EGOKITU ZIREN,
UGAZTUNAK EHIZATZEN ZITUZTEN.
FRUITU BILTZAILEAK ERE BAZIREN
(MASUSTAK, INTXAURRAK...),
ETA INGURUKO LANDAREAK ERE
BILTZEN ZITUZTEN.

**ORDENA ITZAZU HONAKO ESALDI HAUEK, ORDUKO BIZIMODUA ETA
EZAUGARRIAK ULERTZEN LAGUNDUKO BAITIZUTE.**



KLIMA

LEHORRA

ETA

OSO

ZEN

HOTZA

.....

.....



BIZITOKIA

TALDEKA

ZIREN

LEIZEETAN

BIZI

.....



**AURKIKUNTZA
GARRANTZITSUA**

ETA

ARGIA

LORTU

ESKER

SUARI

BEROA

ZITUZTEN

.....

.....

.....



ANBOTO

Lezetxikiko
Harpea


Leze
koban

MURUGAIN

Aramaio erreka



NI LEZETXIKIN BIZI
IZAN NINTZENEAN,
HORRELAKOA
ZEN ARRASATEKO
INGURUA.



JANTZIAK

ANIMALIEN LARRUA ERABILTZEN ZUTEN BERAIEN ARROPAK EGITEKO.

APAINGARRIAK

LANDAREAK, MASKORRAK, LETAGINAK, ETAB. ERABILITA EGITEN ZITUZTEN OBJEKTUAK.

OSAGARRIAK

ANIMALIEN TENDOIAK ETA ZUNTZ BEGETALAK (HOSTOAK, ENBOR AZALAK...) ERABILTZEN ZITUZTEN GERRIKOAK, SOKAK ETA TRESNAK (ARKUAK...) EGITEKO.

TRESNAK

AIZKORAK, GEZIAK, MAKILAK, ARKUAK, ETAB. EGITEN ZITUZTEN ZEUZKATEN BALIABIDEekin. HAU DA, BALIABIDE NATURALEKIN (HARRIAK, ZUHAITZ ADARRAK...).



ZERTARAKO ERABILTZEN ZUTEN EDO ZEREKIN LOTUKO ZENUKE?

ANIMALIEN TENDOIAK

SOKAK

MASKORRAK

ANIMALIEN HAGINAK

LARRUA

JANTZIAK EGITEKO

APAINTEZKO

✓ ZURE USTEZ, ZERTARAKO JANZTEN ZIREN?

HOTZETIK BABESTEKO.

BERAIEN BURUA APAINTEZKO.

ANIMALIA ITXURA IZATEKO.




SUARI
ESKER,
ARGIA ETA
BEROA LORTU
ZITUZTEN, ETA
HAIEN BIZIMODUA
HOBETU ZEN.
BEREZIKI, GAU ETA
NEGU HOTZETAN.

ANIMALIETATIK BABESTEKO
ETA HORIEK UXATZEKO
ERABILTZEN ZUTEN
SUA.

SUAREN BITARTEZ, JANARIA ERRE ETA EGOSTEN ZUTEN.
HORRELA, ELIKADURA OSASUNGARRIAGOA LORTU ZUTEN.

 BA AL DAKIZU NOLA EGITEN ZUTEN SUA?





HARRIAK ZERTARAKO ERABILTZEN ZITUZTEN? ZUZENAK  MARGOTU.

LANABESAK EGITEKO

JANARIA BIRRINTZEKO

TRESNAK ZORROZTEKO

JOLASTEKO

EGURRAK... APAINTEZKO

AURPEGIA MARGOTZEKO

EHIZATUTAKO ANIMALIEI LARRUA KENTZEKO

OSA EZAZU HONAKO GURUTZEGRAMA HAU:



1 SUHARRIA

2 HORMA-IRUDIA

3 KOBAZULOA


7 LARRUA



6 FOSILA



5 AIZKORA



4 GEZIA

KOBAZULOETAN AURKITUTAKO
AZTARNEI ESKER DAKIGU
GURE ARBASOAK BERTAN
BIZI IZAN ZIRELA ORAIN DELA
MILAKA ETA MILAKA URTE.




LEZETXIKIN EGINDAKO INDUSKETAK

MARGOTU ZURE USTEZ DAGOKION KARRATUA.




	✓	✗
EHIZTARIAK ETA FRUITU-BILTZAILEAK ZIREN.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
LEIZEETAKO HORMETAN ISPILUA JARTZEN ZUTEN.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
BIZIKLETAK ZITUZTEN LEKU BATETIK BESTERA JOATEKO.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
SUA, ORDUKO GIZAKIEK LORTUTAKO AURKIKUNTZA DA.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
HARRIZKO TRESNERIA ERABILTZEN ZUTEN.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
GAUERO OILASKOA PATATEKIN AFALTZEN ZUTEN.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
GARAI HARTAN HARTZAK BIZI ZIREN LEZETXIKIN.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
ARRASATEKO KOBAZULO BATEK LABEKO KOKA ZUEN IZENA.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
MASKORREKIN EGINDAKO APAINGARRIAK ERABILTZEN ZITUZTEN.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
ANIMALIA LARRUZ EGITEN ZITUZTEN BERAIEN JANTZIAK.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

INGURATU GARAI HARTAKO ANIMALIAK.





JARRAITU ORDENARI LEPOKOA BUKATU ARTE:



ESKULANA:

BEHARREZKO MATERIALA



SOKA EDO
ARTILE ZATI BAT



MAKARROIAK



KOLORETAKO TENPERAK
ETA PINTZELA


PAUSOAK

1




MAKARROIAK TENPERAZ
MARGOTU.

2



MAKARROIAK SOKATIK
PASATU.

3



KORAPILOA
EGIN.

■ ZER DA ARKEOLOGIA?

GURE HISTORIA AZTERTZEN DUEN ZIENTZIA DA. ARKEOLOGIAK, GURE AURRETIK BIZI IZANDAKO GIZARTEAK ETA HORIEN BIZIMODUA AZTERTZEN DITU, ETA HORRETARAKO, ORDUKOEK UTZITAKO MATERIALAK EDO AZTARNAK BILATZEN DITUZTE AZTARNATEGI EDO INDUSKETETAN.



■ ZEIN USTE DUZU DELA ARKEOLOGOEN LANA?

■ ZER DA AZTARNATEGIA? AUKERATU ZURE USTEZ ZUZENA DENA.


- HARRIZ INGURATUTAKO LUR EREMUA
- HEZUR ETA AZTARNAK DAUDEN TOKIA
- LIBURUZ BETERIKO INFORMAZIO GUNEA
- KOBAZULO SARRERAREN ARGAZKIA

■ BILATU 7 EZBERDINTASUNAK.





INDUSKETEI ESKER GURE
 ARBASOEN BERRI DUGU, ETA
 GERUZEN ARABERA AZTARNA
 HORIEN DATA EDO ORAIN
 DELA ZENBAT URTEKOA IZAN
 DAITEKEEN JAKITEN DA, BESTE
 HAINBAT INFORMAZIO ERE
 EGIAZTATU ETA BATERATU
 ONDOREN, NOSKI.



KOBAZULOETAN ZER GAUZA AURKI DITZAKEGU?

ANIMALIEN HEZURRAK

.....

.....

.....

BERRIDATZI ARRASATEKO LEIZEAK DIRENAK.

OTERRETA

.....

.....

MURUGAIN

.....

.....

ETXALUZE

.....

.....

ATXABAL

.....

.....

GESALIBAR

.....

.....

LEIBAR

.....

.....

- ENTZUN ADI JARRAIAN DITUZUN TESTUEN INFORMAZIOA. ARRASATEKO BI KOBAZULO GARRANTZITSUREN INGURUAN GEHIAGO JAKITEKO BALIOKO BAITIZUE. ESAN ZURE IRAKASLE EDO GURASOEI IRAKURTZEKO ETA ONDOREN GELAKIDEEKIN HONETAZ HITZ EGIN.

IZENA: LABEKO KOBIA
EREMU BEREAN DAGOEN LABE BASERRIAREN ONDORIOZ
HARTU ZUEN IZENA.

KOKAPENA:
GAUR EGUN, SAN JOSEPE IZENEZ EZAGUTZEN DUGUN
EREMUAN KOKATUA DAGO.

KOKALEKU ESTRATEGIKOA DU, BERTATIK ARRO GUZTIA IKUSTEKO
AUKERA DAGOELAKO ETA BESTETIK, UR-SARE GARRANTZITSUTIK
GERTU DAGOELAKO. GAUR EGUN ARAMAIO ERREKAK DEBA
ERREKAREKIN BAT EGITEN DUEN PUNTUAN.

AIPATZEKOAK:
ARRASATEKO SAIHESBIDEA LABEKO KOBIA ZEGOEN TOKITIK
PASATU BEHAR ZUELA ETA INDUSKETAK BURUTU ZIREN BI URTEZ.
LEHEN AURKIKUNTZEN ARTEAN AIPATZEKO DA ERRINOZERONTE
ILETSUAREN MATRAILEZURRA.




IZENA: LEZETXIKI

EZAUGARRIAK:
HAITZULOAK TUNEL FORMA DU. INGURUAN HAINBAT KOBIA DAUDE: LEZETXE,
LEZETXIKIKO HARPEA...

KOKAPENA:
GARAGARTZA AUZOAN DAGO.

AIPATZEKOAK:
GAUR EGUN, ARANZADI ELKARTEKOAK INDUSKETAK EGITEN JARRAITZEN
DUTE URTEZ URTE ETA AURKIKUNTZA GARRANTZITSUAK EGIN DITUZTE.
EUSKAL HERRIKO GIZA AZTARNARIK ZAHARRENA KOBAZULO
HONETAN AURKITU ZEN.

- ARRASATEN TOPATUTAKO AURKIKUNTZA GARRANTZITSU BATZUK.



EUSKAL HERRIKO GIZA AZTARNARIK ZAHARRENA DA. DUELA **140.000** URTE BIZI
IZANDAKO EMAKUME BATEN ESKUMAKO BESO HEZURRA: HUMEROA. AZTARNA
OSORIK AURKITU ZUTEN KOBAZULOAREN SABAITIK OSO GERTU.

HOMO HEIDELBERGENSIS GARAIOA IZAN DAITEKEELA DIOTE ARANZADI
ZIENTZIA ELKARTEKO ADITUEK.



DUELA 150.000 URTEKO HARTZ BATEN **BUREZURRA**. URSUS DENINGERI
ESPEZIEKOA. ORDUKO HARTZAK: 2.5 METROKO ALTUERA ETA 600 KILO
INGURU PISATZEN OMEN ZITUZTEN. **LEZETXIKIN HAINBAT TOPATU DIRA,
20 BUREZUR BAINO GEHIAGO.**



BA AL DAKIZU ZER AUZOTAN DAGOEN?



LAMIAK KOKA AUNDI KOBAZULOAN BIZI ZIREN GAZTE EDER ETA LIRAINAK ZIREN.

OINAK AHATEEN ANTZEKOAK ZITUZTEN, ETA SETAZKO SOINEKOAK JANZTEN ZITUZTEN. URREZKO ORRAZIEZ APAINTZEN ZUTEN BERAIEN ILEHORI LUZEA.

GAUEKO 12^{ETAN} ARROPA GARBITZERA JOAN OHI ZIREN ERREKA BAZTERRETARA.

KOKA AUNDI ETA KOKA TXIKI ARTEKO BIDEZIDOR BATEAN DAGOEN EREMU TXIKI ETA LAUAN, BATZUETAN DANTZAN ARITZEN ZIRELA ETA BERTAN IKUSI ZITUZTELA ESAN OHI DA. "LAMIÑEN ZELAXE" DERITZONA, ALEGIA.

BESTALDE, ZELAI HORRETATIK OSO GERTU DAGOEN KOKA BATI "LAMIÑEN ESKATZA" DEITZEN ZAIO.

ERANTZUN HONAKO GALDERA HAUEI:

- ZER ANIMALIAREN HANKAK ZITUZTEN?

.....



- ZER ORDUTAN JOATEN ZIREN ARROPA GARBITZERA?

.....



- NOLAKO ILEA ETA ZER KOLOREKOA ZUTEN?

.....



- ZER ERABILTZEN ZUTEN ILEA ORRAZTEKO?

.....



LEIZEEN BARRUALDEAN HARTZEN ZUTEN FAMILIAKO KIDEEK ATSEDEAN. EGOTEKO ERABILTZEN ZUTEN TOKITIK BARRURAGO EGITEN ZITUZTEN BEREN ARTELANAK.



GAIK
ANIMALIAK ETA
EHIZA-GAIK
MARGOTZEN ZITUZTEN
GEHIENBAT.

BEREN ESKU ETA
ATZAMARRAK
INPRIMATZEN ZITUZTEN.

KOLORE BATEKO EDO BIKOAK
IZATEN ZIREN, BELTZAK ETA
GORRIAK BEREZIKI.

 ESKULANA: SAIATU ORDUKO HORMA-IRUDI BAT EGITEN.





NEOLITO GARAIAN, GIROA EPELDU ZENEAN, BIZIMODUA ALDATZEN HASI ZEN.



 OSA ITZAZU ESALDIAK DAGOZKIEN HITZEKIN.

- BASOAK MOZTU ETA _____ LANTZEN HASI ZIREN _____ SORTUZ.
- ANIMALIAK _____ BEHARREAN, ZAIKTZEN HASI ZIREN ETA HORRELA _____ HASI ZEN.
- _____ UTZI ETA TXABOLAK ERAIKI ZITUZTEN BIZI IZATEKO.
- AURKITUTAKO OBJETUETATIK ONDORIOZTATU DAITEKE _____ ETA EHUNA LANTZEN ZITUZTELA.
- ARRASATEN EZ BADAUDE ERE, MONUMENTU _____ DIRA ORDUKO GARAITIK MANTENTZEN DIREN AZTARNA ESANGURATSUENETAKOAK.

NEKAZARITZA

ARTZAINZA

BUZTINA

MEGALITIKOAK

KOBAZULOAK

EHIZATU

LURRA

 ZER IKASI DUZU?

EZER EZ

PIXKA BAT

ASKO

HAIEN BIZIMODUARI BURUZ...

HAIEN JANZKERARI ETA OHITUREI BURUZ...


ORDUKO AURKIKUNTZEN INGURUAN...

ARRASATEKO KOBAZULOEI BURUZ...

INDUSKETEN INGURUAN...

ORDUKO ARTEARI BURUZ...

 ZER GUSTATU ZAIZU GEHIEN?





IZAN GINELAKO

Herria ezagutzen

1. IZAN GINELAKO
2. Errementarien zalapartapean
3. Handitzen handitzen
4. Gure altxorra
5. Izan ginelako gara
6. Ekin eta ekin



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

hh
hik hasi

di-gia
zure balioen marka

www.arrasate.eus